

OSASUNA HERRIALDE GARATUETAN ETA EZGARATUETAN

MONOGRAFIA



DBH3 Hizkuntzen Tratatua Bateria baterako materialak

Berritzeguneak
Araba · Bizkaia · Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Berrikusita
09/05/22

HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS

DBHko 3. mailarako materialak / Materiales para 3º de E.S.O.

PROIEKTUA / PROYECTO: Osasuna denontzat

UNITATEAK: **Osasuna herrialde garatuetan eta ez garatuetan. Monografia.**
UNIDADES: Salud para todos. Glosario.
Taking care of ourselves. A presentation.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEAK: Maribi Apraiz
AUTORAS: Josebe Amondarain
Ainhoa Imaz

KOLABORATZAILEAK: Adela Fernández, Irene González, Marimar Pérez, eta
COLABORADORES: Hizkuntza eta Gizarte esparruko Bigarren Hezkuntzako
Aholkulariak

Berritzegune Nagusia (Bilbao)
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO

2008ko urria
Octubre de 2008

Euskal Herrian bizi gara eta denok dakigu geure bizi kalitatea eta osasun egoera bestelakoak direla beste herrialde batzuen aldean. Albisteak irakurri edota dokumentalak eta erreportajeak ikusi besterik ez dago horrela dela egiaztatzeko. Horregatik, munduko biztanle guztiek aukera berdinak ez dituztela erakusteko, herrialde garatu eta ez-garatuen osasun egoeraren aldeak aztertzeko proposamena egiten dizuegu.

Proiektu honetan, herrialde garatuen eta ez-garatuen osasun egoerari buruzko azalpen testua idatziko duzue taldeka, monografia, hain zuzen, munduak duen orekarik gabeko egoera aztertzeko; gaixotasunak zer ezberdinak diren herrialdearen bizi kalitatearen arabera ikustarazteko... zuek zeuok aukeratuko dituzuen bi herrialdeen egoera sakon aztertuta.

Monografia beste ikasgelakoen liburutegi txokoan edota ikastetxeko liburutegian jarriko duzue ikusgai. Bestalde, aldi berean, gaztelania arloan glosategia idatziko duzue osasunarekin erlazionaturiko hitzen definizioak azaltzeko.

Unitate hau honako egituraren arabera ardatzuko da:

0 Jarduera: Negoiazioa
1. LAN-SEKUENTZIA MONOGRAFIA, ZER DA? 1. jarduera: Monografiaren eta azalpen testuen ezaugarriak zehazten 2. jarduera: Glosategia eta monografia 3. jarduera: Objektibotasuna/subjektibotasuna bereizten 4. jarduera: Lexikoa. Hitzak sailkatzen
2. LAN-SEKUENTZIA GAIA ZEHAZTUKO DUGU: HERRIALDE GARATUEN ETA EZ-GARATUEN ALDEAK 5. jarduera: Herrialde garatuen/ez garatuen ezaugarriak aztertzen 6. jarduera: Zenbait datu interneten jasotzen 7. jarduera: Grafikoak: azalpen testuetan informazio bide garrantzitsuak
3. LAN-SEKUENTZIA AZALPENA NOLA ANTOLA DEZAKEGU ERA EGOKIAN? 8. jarduera: Testu antolatzaileak eta lokailuak 9. jarduera: Herrialdeen kokapena azaltzen
4. LAN-SEKUENTZIA MONOGRAFIA IDATZIKO DUGU 10. jarduera: Planifikazioa 11. jarduera: Aztergaiak aukeratzen 12. jarduera: Datuak biltzen eta lanaren helburuak zehazten 13. jarduera: Gidoia eta eskema osatzen 14. jarduera: Konparazio-egitura 15. jarduera: Konparazio-egitura garatzeko sintaxia ariketak 16. jarduera: Sarrera idazten 17. jarduera: Azken ekoizpena eta ebaluazioa

HAUSNARTZEKO...

Erreparatu ondoko argazkiei. Ondo adierazten dute Mundu garatuaren eta ezgaratuaren osasun egoeren arteko aldea, ezta?

Elkartu taldeka eta arretaz begiratu ondoren, hitz egin ezazue irudi hauek adierazten dutenaz.





Galderak:

- Zerk hunkitu zaituzte?
- Zein irudi erabiliko zenukete gaur egungo gizarte garatueta osasun egoera adierazteko?
- Gizarte azpigaratueta edo garatzeko bidean daudena osasun errealitatea adierazteko zer irudi jarriko zenukete?
- ...

0. jarduera: Negoziazioa

Taldeka arituko zarete. Azter ezazue beheko txantiloia, ondoko jarraibideak kontuan harturik:

- Idatzi zutabe horietan zuen ustez falta dena, garrantzitsua baldin bada.
- Zuen iritziz garrantzirik ez duena, kendu.
- Sailkatu zutabe bakoitzeko datuak garrantziaren arabera.

Ordezkarria izendatu behar duzue, denok talde handian batera aritzen zaretenean, taldekideen iritzien berri emateko.

Zer ikasiko dugu?	Nolako jarduerak egingo ditugu?	Nola ebaluatuko dugu lana?
➤ Azalpen testuen ezaugarriak identifikatzen. ➤ Monografiak eta glosategiak bereizten. ➤ Azalpen testuak idazteko lokailu eta antolatzaile egokiak erabiltzen. ➤ Konparazio egiturak ondo antolatzen. ➤ Grafikoetako informazioa azaltzen. ➤ Hainbat iturritatik informazio baliagarria ateratzen.	✓ Testuak aztertu eta fitxak bete. ✓ Galdera zehatzak erantzun. ✓ Taldeka zenbait ideia eztabaidatu, ados jartzeko. ✓ Herrialdeak mapa mutuetan kokatu. ✓ Grafikoak azaldu. ✓ Interneten informazioa jaso. ✓ Testuetako hutsuneak bete.	PROZEDURAK ➤ Autoebaluazioaren bidez. ➤ Ikaskideen ebaluazioaren bidez. ➤ Ahozko jardueren bidez. ➤ Aurkeztutako lantxo eta eskemen bidez. ➤ Azterketen bidez. ➤ Koadernoak zuzenduz. JARRERAK ➤ Talde lanetan parte-hartze aktiboaren bidez. ➤ Talde lanetan kideak errespetatuz.

1. LAN-SEKUENTZIA

MONOGRAFIA ZER DA?

1. jarduera: Monografiaren eta azalpen testuen ezaugarriak zehazten

Azalpen testuak aurreko ikasturteetan ere landu dituzue: 1. DBHn, esaterako, "Hizkuntzak eta hiztunak" gaiaren inguruko bi proiektu (bata euskaraz, horma-irudia; eta bestea, gaztelaniaz, ahozko azalpena) burutu zenituzten, 2. DBHn ere landu duzue testu tipo hori; beraz, ezaugarriak ez dira berriak zuentzat.

Aurton aurreko ikasturteetan ikasitakoaren bidea jorratuko dugu neurri handi batean, baina beste genero bat abiapuntutzat harturik: [monografia*](#).

Jarduera honetan azalpen testuen ezaugarri orokorrak eta zehazki monografiarenak aztertuko dituzue; izan ere, ezaugarri horiek funtsezkoak izango dira azken produkzioa gauzatu ahal izateko.

Prozedura:

Hiruko taldean arituko zarete.

Irakasleak hiru monografia aurkeztuko dizkizue. Testuak aztertu eta ezaugarriak erreparatu beheko fitxako galderak kontuan harturik. Ondoren, bete ezazue fitxa.

Materiala:

Zenbait monografia (euskaraz)

- 1.- <http://www.saretik.net/testuak/emaitzaeus.asp> (bi monografia labur)
- 2.- http://www.aisia.net/albisteimages/pdf1_134.pdf
- 3.- <http://www.unescoeh.org/dokumentuak/carp3eusk.pdf>
- 4.- http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4892/eu/contenidos/planes/plan_residuos_peligrosos/eu_10758/adjuntos/vehiculos.pdf
- 5.- <http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-19024/eu/> (osasunari lotutako zenbait gai monografiko)

(gaztelaniaz)

- 5.- <http://www.monografias.com/trabajos7/mono/mono.shtml#bus>

BEHAKETAKO TXANTILOIA (1. jarduera)

	1. TESTUA	2. TESTUA	3. TESTUA
1. Zertarako erabiltzen da ?			
2. Non, zein eremutan erabiltzen da?			
3. Nork idatzi du?			
4. Zein da igorlearen asmoa?			
5. Igorlearen markarik ageri da? Pertsona, izenordeak... Berari buruzko aipamenik inon irakurri duzu?			
6. Hartzailearekiko loturarik bilatzen da? Pertsona, izenordeak... Deikirik badago?			
7. Testu idatzia du soilik, ala elementu grafikoak ere badaude?			
8. Informazioa nola dago antolatuta? Atalka, kapituluka, gai eta azpi-gaien arabera...			
9. Kontzeptuak eta definizioak ematen ditu? Nola?			
10. Deskripziorik ageri da?			
11. Iritzirik irakurri duzu?			
12. Narraziorik?			
13. Nola ageri dira aditzak? Zein pertsona eta denboratan? Zergatik uste duzu ageri direla denbora eta modu horiek?			
14. Lexikoa jasoa da? Lagun artekoa?			
15. Zein da monografia?			
16. ...			


Orain erantzunak bateratu eta monografiaren ezaugarriak behinena adieraziko dituzue.

Horretarako, testu bat idatzi behar duzue. Eredu gisa erabil dezakezue guk proposatzen dizueguna, baina, kontuz! Bukatu gabe baitago.

Hutsuneak bete behar dituzue eta monografiaren ezaugarri behinena adierazi:

" Monografia testua da eta eremuan erabiltzen da, batik bat. Xedea edo helburua da. Besteak beste, ezaugarri nagusi hauek ditu: Igorleari dagokionez, Hartzailea(k), berriz, Formari eta antolaketari dagokionez, Ezaugarri linguistiko hauek ditu:.....
Aditza:.....
Izenak:.....
.....

Oharra: Ikastunitate honen bidez gauzatuko duzuen monografiak, gutxienez, 10 bat orrialde izango ditu, eta formatuari erreparaturik ondoko atal hauek izan beharko lituzke:



Gaztelaniazko unitatean osasunari buruz landuko duzuen ere bertan txerta dezakezue.

Irakasleak erakutsi dizkizuen ereduak erretaz erreparatu badiezue, horitik abiatuta erabaki nola antolatuko duzuen monografia.

2. jardura: Glosategia eta monografia

Gaztelania arloan glosategia lantzen ari zarete. Jardura honetan zuba eraikiko dugu gaztelania arloarekin eta horretarako, bi generoen (glosategia eta monografia) konparazioa burutuko duzue.

Prozedura:

Taldeak bildu eta ezaugarriak aztertuko dituzue (gaztelaniazko proiekturako materiala erabili). Behaketaren emaitzak ondoko koadroan adierazi:

BEHAKETA TXANTILLOIA (2. jardura)

	MONOGRAFIA	GLOSATEGIA
1. Helburua. Zertarako?		
2. Zer testu tipo da?		
3. Erabilera eremua. Non erabiltzen da?		
4. Igorlearen markarik ageri da?		
5. Zein dira hartzaileak?		
6. Testu objektiboa ala subjektiboa?		
7. Lexiko teknikorik ageri da? Nolako lexikoa du?		
8. Antolaketa. Informazioa nola adierazten da?		

Ondorioa:

Zeintzuk dira partekatzen dituzten ezaugarriak?

Zerk bereizten ditu?

3. jarduera: Objektibotasuna/subjektibotasuna bereizten

Aurreko jarduerako enuntziatueta bat testuaren objektibotasun-subjektibotasunari buruzkoa izan da. Oro har, ziur gaude badakizuela zertan datzan ezberdintasuna: subjektibotasuna askotan balorazioen bidez agertu ohi da (" aspergarria suertatu zait "; " oso atsegina da"), edo lehen pertsonaren bidez ("nik..." " nahiago dut "), hau da, igorlea ageri da. Objektibotasuna, berriz, igorlearengandik urrunago dago, hitzek balio denotatiboa dute, ez dago baloraziorik, pertsona, denbora eta modua ere nahiko zehatzak dira.... Gertakariren bat jazo den modu-moduan kontatu behar izango bazenute, zein aditz denbora eta modu erabiliko zenukete?

Bi ikuspuntu horiek ondo bereiztea da jarduera honen helburua. Azalpen testua idatzi behar dugu, monografia, eta garrantzi handikoa da bereizketa hori zertan datzan jakitea. Horrexegatik proposatzen dizuegu jarduera hau.

Prozedura:

Taldeka bildurik irakur itzazue ondoko testuak. Arretaz aztertu eta zehaztu zein diren objektiboak eta zein subjektiboak.

Testuak irakurri ahala har ezazue arkatza eta topa itzazue aditzak. Ikusi zein pertsonatan eta modutan (indikatio, subjuntio...) dauden jokaturik. Era berean, erreparatu izenei, adjektibo, pertsona izenordainei...

Behatu ea testuak iritzirik ematen duen, nolakoak diren ageri diren adjektiboak...

Behaketaren emaitzak behaketa txantiloian idatziko dituzue.

TESTU OBJEKTIBOAK ETA TESTU SUBJEKTIBOAK

1. Testua



2. Testua

(...)

H5N1 hegaztien **gripe** sortzen duen birusaren **aldaerarik** gaiztoena Europara iritsi omen da. Gauzak horrela, balizko izurriterako prestatzeko eskatu zien Europako Batzordeak Batasuneko kide diren estatuei. Izan ere, *gaitz orok du bere gaitzagoa*. Birusa **mutatzen** bada, pertsonatik pertsonara zabalduko da, eta **pandemia** izugarria eragingo du.

Badirudi birusa hegazti basatien bidez mugitzen ari dela; hala ere, argi izan behar dugu oilategi handiek eta kontrolik gabeko salerosketek zerikusi handia izan dutela H5N1 delako birusa zabaltzerakoan. Alegia, era honetako **izurriteen** lehen arrazoa da erakundeek eta **elikagaien** inguruko enpresa handiek kopuruari, elikagaien auto-hornikuntza hutsari eta etekinei ematen dietela lehentasuna, alde batera utzita kalitatea, eroslearen eskubideak edo izurriteen arriskua. *Hor konpon Mari Anton!* Atarramentu ekonomikoaren izenean, berdin zaie milioiak hiltzen badira ere.

Ulrick Beck-ek bere *Gizarte arriskutsua* (1998) liburuan dioten legez, urritasunaren gizartetik gizarte arriskutsura pasatu gara. Gizarte aberatsek, oinarritzko beharrianak asebate dituzten heinean, gizakion **biziraupena** eta baita gure planetaren etorkizuna zalantzan jartzen duten arriskuak sortu dituzte. Mementoan ikusten ez diren arriskuak dira, atzera bueltarik ez dutenak, gu guztion **osasunari** kalte izugarriak egiten dizkietenak, eta, gainera, ondorio ekonomiko, politiko eta sozial larriak dituztenak.

Kostaldeak hondatzen dituzten petrolio-ontziak, muga **geopolitikoak** zailtasunik gabe igarotzen dituzten izurriteak eta **kutsakin** erradioaktiboak edo ozono geruza gero eta hondatuagoa dira gure planetak dituen arriskuatariko batzuk. Osasunari, gorputzari eta, orokorki, kanpo itxurari garrantzi handia ematen diogu, baina, era berean, planetaren

etorkizuna arriskuan jartzen duten inoiz baino elementu gehiago ditugu inguruan. Aberatsagoak gara, baina baita ahulagoak eta **hauskorrak** ere. Badirudi, gainera, gure ahultasun hau areagotzen ari dela mundu globalizatu honetan. Distantzia fisikoak desagertzen doazen neurri berean, munduko edozein eskualdetan gertatzen denak **eragin** zuzena eta berehalakoa izan dezake gure eguneroko bizitzan. Txinan, Mongolian edo Errusian gertatzen denak Turkian edo Errumanian eragiten du berehala, hegaztien gripearekin ikusten ari garen bezala. *Nunca mais eta bestelako mundu bat posible da* oihukatzen baditugu ere, egiatan arriskuz beteriko mundua sortzen ari gara. Kanpaiak ordainduko du.

Berria (<http://www.habe.org/ikaslearengunea/murgilduz/murg0135.htm>)

3. Testua

Sei lagunetik batek 1.000 milioitik gora guztira behar baino gehiago pisatzen dute edota loditasun arazoak dituzte munduan. OME Osasunerako Mundu Erakundeak ohartarazi du loditasuna izurri bihurtu dela, eta ez **herrialde** industrializatueta bakarrik. Izan ere, garatzeko bidean diren herrialdeetan ere nabarmen egin du gora gizentasun arazoak dituztenen kopuruak. OMEren arabera, egungo joera mantenduz gero, 2015. urterako milioi erdi biztanle gehiagok izango dute arazo hori.

Gizentasuna exogenoa izan daiteke (gehiagi jateak eragiten duena) edota endogenoa, trastorno metaboliko edo **endokrinoek** eragindakoa, eta bihotz-hodietako gaixotasunen eragile nagusia da. Munduan, 17 milioi lagun inguru hiltzen dira urtero **bihotz-hodietako** arazoen ondorioz. OMEk nabarmendu du, baina, loditasuna eta hari lotutako gaixotasun **kronikoak** erraz saihesta daitezkeela, janari lasterrak eta tabakoa baztertu eta kirola sarri eginda. Haren esanetan, bihotz hodietako gaixotasun kasuen eta B diabetes **diabetes mellitus** kasuen %80 eta **minbizi** kasuen %40 saihestu ahalko lirake, dieta osasuntsua eginda. Diabetes mellitusa **eritasun** kronikoa da. Karbohidratoen metabolismoa aldatzen du gaitzak, eta ondorengo sintomak agertzen dira: **hipergluzemia**, glukosuria, egarri handia, hiperorexia (gose handia), flakatzeta, neuralgiak, hazkura, eta azidosia, besteak beste. Bihotz-hodietako gaixotasunek eta diabetes mellitusak ezintasun larriak eta gastu ekonomiko handiak eragiten dituzte, kasurik arinenetan. Hamar urte gabe, bihotz-hodietako gaixotasun kasuak nabarmen **ugaritu**ko direla iragarri dute adituek. Haien esanetan, Mediterraneo ekialdeko herrialdeetan laurden bat ugarituko dira bihotzeko gaixotasunei lotutako **heriotza** kasuak. Egun, 30 urtez gorako emakumeen %75ek behar baino gehiago pisatzen dute edota gizentasun arazoak dituzte Hego Afrikan, Turkian, Egipton, Maltan, Mexikon eta Ameriketako Estatu Batuetan. Estatistikak antzekoak dira gizonetan, Grezian, Kuwaiten, Zeelanda Berrian, Argentinan, Erresuma Batuan eta Alemanian. Nolanahi ere, daturik larrienak Nauru eta Tonga Pazifiko mendebaldeko uharteetakoak dira. Uharte horietan hamar pertsona heldutik bederatzik dituzte gizentasun arazoak .

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=386>

BEHAKETAREN DATUAK JASOTZEKO TXANTILOIA (3. jarduera)

OBJEKTIBOTASUNA/SUBJEKTIBOTASUNA

Erreparatu aditzei (denbora, pertsona, modua). Nolakoak dira?

1. testua:

2. testua:

3. testua:

Lexikoaz zer esan dezakezu? Lexiko landua, tekniko-zientifikoa, balorazioa egiten duena... Nolakoak da?

1. testua:

2. testua:

3. testua:

Zein da objektiboa? Non antzematen da?

Subjektibotasuna nolako ezaugarrietan islatzen da?

Monografiak zein ikuspunturi eutsi behar dio zure ustez? Zergatik?

4. jarduera: Lexiko ariketa

Azalpen-testuen helburua gai bati buruzko informazioa jakinaraztea da, hartzaileari informazio hori ahalik eta modurik zehatzenean transmititzea, alegia. Informazio horretan berebiziko garrantzia dute hitzek, eta monografia idazteko hitz tekniko-zientifikoak erabili beharko dituzue. Hitzak sortzeko bide eta baliabideak antzekoak dira hizkuntza guztietan.

Aurreko jardueran irakurritako testuetan zenbait hitz ikusi dituzue beltzez eta azpimarratuta. Hitz horiek osasun gaiei buruzkoak dira. Jarduera honetan sailkatu egingo dituzue eta nola eratu diren esango duzue.

Gaztelania arloko unitatean hitz berriak sortzeko baliabideak landuko dituzue. Unitate honetan ere euskarak dituen hiru bide nagusiak aztertuko dituzue: hitz-mailegutza, eratorpena eta elkarketa.

Sinple eta labur azaltzeko:

Mailegutza: hitzak beste hizkuntzetatik hartzean datzan lexiko-sorkuntzarako bidea da.

Eratorpena: hitz bati aurrizkiak, artizkiak edo atzizkiak erantsiz, unitate lexikal berriak sortzea ahalbidetzen duen prozedura da.

Hitz-elkarketa: berez askeak diren bi hitz, edo gehiago, elkartzuz, edukiz eta formaz unitate lexiko berria sortzea ahalbidetzen duen prozedura da.

Prozedura:

Taldeka bildu eta esan nolakoak diren aurreko testuetan beltzez eta azpimarratuta dituzuen hitzak eta zer osagai dituzten.

HITZEN SAILKAPENA

MAILEGUAK	HITZ ERATORRIAK	HITZ ELKARTUAK

4.1. Orain, hautatu edozein liburutako testu bat, edota zeuok idatzitako edozein idazlan. Hirunaka bildu eta bilatu zenbait hitz mailegatu, hitz eratorri eta hitz elkartu eta esan, ahal izanik, maileguen kasuan zer jatorri duten, eta eratorpenean eta elkarketan zeintzuk diren osagaiak (aurrizki-atzizkiak, hitzak)

Maileguak		Hitz eratorriak	Hitz elkartuak
	Zein hizkuntzatatik dator?		

4.2. Beste ariketa hau ere egin dezakezue. Taldeka bildu eta testuan bilatu hitz mailegatuak, eratorriak eta elkartuak. Ea zein taldek topatzen dituen hitz gehiago! Irakaslearekin zuzendu.



Mononukleosi infekziosoa Gaixotasun isila

Lehen sintomak -buruko mina, nekea eta sukarra- oso erraz nahas daitezke beste gaixotasun batzuen sintomekin

Mononukleosi infekziosoa edo *musuaren gaixotasuna* gutxi ezagutzen dugun patologia da, baina uste baino eragin handiagokoa. Gaixotasun infekzioso akutua da, hedapen unibertsalekoa, gizakietan bakarrik agertzen dena eta Epstein-Barr birusak (EBB) sortua. Hasiera batean

oharkabean pasa liteke eta lehen sintomak (buruko mina, nekea eta sukarra) agertzen direnean oso erraza da beste gaixotasun batzuen sintomekin nahastea. Batez ere nerabe eta pertsona heldu gazteei eragiten die -herrialde garatueta bereziki-, baina haurren artean ere kasu ugari izaten da, garapen bidetan diren herrialdeetan gehienbat. Haurrengan, sintomarik gabeko prozesuak izaten dira, berriro infektatzeko arriskuaren aurrean immunitatea ematen dietenak. Hala ere, mononukleosia ez da oso kutsagarria eta bere eragina %15etik beherakoa izaten da gaitza jasateko arriskua duten unibertsitateko ikasleen artean.

Transmisioa eta sintomak

Gizakia da birus mota hau kutsatzeko iturri bakarra, batez ere txistuaren bitartez kutsatzen baita; horregatik deitu ohi zaio *musuaren gaixotasuna*, ahoan musu ematea baita gaitza transmititzeko erarik ohikoena. 15 eta 25 urte bitarte neska eta mutilengan izaten du eragina batez ere, eta gutxiago 35 urtetik gorako helduengan. Haur eta titiko umeen artean gertatzen diren infekzio gehienak sintomarik gabeak izaten dira edo faringitis arina besterik ez dute sortzen, amigdalitisarekin edo gabe. Aitzitik, infektaturiko nerabeen % 80rengan mononukleosi infekziosoaren sintoma tipikoak eragiten ditu. Adineko pertsonengan sintoma zehatzik gabe agertu ohi da, luzaro sukarra, ondoeza eta giharretako mina adibidez. Askotan oharkabean pasatzen da mononukleosia, baina beste zenbaitetan konplikatu egin ohi da eta arazoak sor ditzake, larriak gutxitan izaten diren arren. (...)

Konplikazioak, ez dira ohikoak

Prozesu infekzioso hau sendatzeko bi hilabete behar izaten da gehienez ere, konplikaziorik agertu ezean behintzat eta normalean ez da hala gertatzen. Mononukleosia onbera izan ohi da gehienetan eta 3-4 astean gaixoa sendatu egiten da, nekeak eta ganglio handituek iraun badezakete ere. Gaixotasunaren diagnostikoa sintoma berezi horietan eta laborategiko probetan oinarritzen da batez ere, serologiakoetan bereziki, gaixotasunean zehar antigorputzak sortzen baitira.

Konplikazio ugari ager daiteke, baina hori ez da maiz gertatzen. Neurologikoak: oso gutxitan, baina meningitisa, entzefalitisa, aurpegiko paralisia, etab.

Tratamendua

Mononukleosi infekziosoak ez du tratamendu espezifikorik, sintomatiko hutsa da eta sukarra den bitartean ohean atsedean hartzea eta paracetamol eta antzeko analgesikoak hartzea beste biderik ez dago. Konplikazio larrien kasuan baino ez da kortikoideak hartzea aukeratu behar. Antibiotikoak sobreinfekzioa dagoenean bakarrik dira egokiak eta sekula ez dira erabili behar ez anpizilina ez eta amoxilina ere, hedapen zabaleko antibiotikoak biak ere. Aciclovir edo antzeko birus-aurkakoei ere ez dute espero zen emaitzarik eman. Faringe eta amigdalaren inflamazioa oso ohikoa eta gogaikarria izaten denez, povidona iodatuarekin gargarak egitea gomendatzen da. Gaur egun txerto motaren bat sortzea ikertzen ari dira, baina txertorik ez dagoen bitartean, prebentzio era bakarra dago: infektaturik gauden bitartean musurik ez ematea, infekzio iturri bakarra gizona eta emakumea baitira eta txistuaren bidez kutsatzen baita. Baina hortxe dago arazoa ere: gaixotasuna hasiera batean oharkabean pasa daitekeenez, infekzioaren diagnostikoa sintomak oso argiak direnean egiten da eta ordurako baliteke beste norbait kutsatu izana. (...)

2.LAN-SEKUENTZIA

GAIA ONDO ZEHAZTU BEHAR DUGU: HERRIALDE GARATUEN ETA EZ-GARATUEN ALDEAK

5. jarduera: Herrialde garatuena/ez-garatuena ezaugarriak aztertzen

Jarduera honetan monografia garatzeko zenbait adierazle dituzue. Herrialde garatuak eta ez-garatuak bereizten dituzten ezaugarriak dira.

Proiektua ondo mugatzeko, adierazle horietatik monografian aztertzeko zein diren egokienak erabakiko duzue. Gero, zuen lana gauzatzekoan adierazle horien arabera hautatuko dituzue aztergai izango dituzuen herrialdeak.

Prozedura:

Hiruko taldean eztabaidatu zein izan daitezkeen zuen iritziz indize egokienak, herrialde garatu eta ez-garatu osasun egoeraren analisi sakona egiteko.

HERRIALDE EZ-GARATUAK

HERRIALDE GARATUAK

1. Langabezia ugari	Lanerako aukera handiagoak
2. Lan, higiene eta azpiegiturarik eza	Azpiegitura egokiak
3. Jaiotza-tasa handia	Famili plangintza
4. Elikagai eskasak	Elikagai egokiak
5. Teknologia eza	Teknologia garapena
6. Edateko urik eza	Edateko ura
7. Per capita errenta txikia	Per capita errenta handia
8. Endemia	Inmunizazioa
9. Haurren heriotza-tasa handia	Haurren heriotza-tasa txikia
10. Etxebizitza eskasak	Etxebizitza egokiak
11. Hezkuntza aukera handirik ez	Hezkuntza aukera handiak
12. Nekazaritzak pisu handia	Nekazaritzak indar gutxi
13. Higiene eskasa	Higienea
14. Bizi-itxaropen txikia	Bizi-itxaropen handia
15. Legearen aurrearen berdintasunik eza	Lege aurrean berdintasuna
16. Emakumeen eskubiderik eza	Emakumeen eskubideak
17.	

www.elkarlanean.com/ostadar

Aukeratutako ezaugarriak:

Arrazoiak:



Taldean hitz egin eta arrazoitu zergatik aukeratu dituzuen batzuk eta baztertu besteak. Ondoren, talde-ordezkariak hautaketaren zergatia ahoz azalduko du beste gelakideen aurrean.

Azkenik, ikastalde osoak erabakiko du zein diren herrialde garatu eta ez-garatu osasun egoeraren konparazioa egiteko adierazlerik egokienak eta irakasleak arbelean idatziko ditu. Zuek koadernoan idatziko dituzue; izan ere, horiexek aztertuko dituzue geroago hautatuko dituzuen herrialdeen osasun egoeraren analisisan.

6. jarduera: Datuak Interneten biltzen

Dagoeneko erabaki duzue monografian aztertuko dituzuen adierazleak. Orain, informazioa bilduko duzue.

Guk, eredu moduan, adierazle horiek aztertzeko bi herrialde oso muturrekoak aukeratu ditugu: Japonia eta Kolonia.

Jardueran honetan proposatutako Interneteko zenbait helbidetara jo eta saiatu ahalik eta informaziorik zehatzena eta argiena ateratzen. Ez ahaztu, zuek ez ezik, informazioa jasoko duten ikaskideek ere ulertzeko moduan adierazi behar duzuela.

Prozedura:

Taldeka bildurik Interneten bilatu guk hautatutako bi herrialdeen osasun egoerari buruzko datuak.

Datuak jasotzeko erabil itzazue ondoko helbide elektroniko hauek:

MATERIALA: (Japonia eta Kolonia)



<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia.asp?sarrera=Japonia>
http://www.hiru.com/geografia/geografia_04800.html
http://www.hiru.com/osasuna/osasuna_05_01_06.html
<http://www.guiadelmundo.org.uy/cd/index.html>
<http://www.monografias.com/trabajos13/japoayer/japoayer.shtml>

Datuak biltzeko txantiloia (6. jarduera)

ADIERAZLEAK	JAPONIA	KOLONBIA

7. jarduera: Grafikoak, azalpen testuetan informazio bide garrantzitsuak.

Aurreko ikasturteetan bai matematikan bai geografian grafiko ugari marraztu eta antolatu egin behar izan dizue, ezta? Bada, oraingoa ere irudi eta grafikoekin arituko zarete, beste arlo batean baina.

Grafikoak neurgarriak diren datuak eta beraien arteko erlazioa ageri-agerian adierazteko baliabide ezin hobeak direla ikusiko duzue.

Hona hemen grafikoen ezaugarri orokorrak biltzen dituen fitxa. Irakurri arretaz:

Grafikoak


Neurgarriak diren datuen arteko erlazioa agerikoa egiten dute eta horrela informazioa erraztu. Ondorioz, informazioa al bait argien eta zehatzen eman behar dute.

Grafiko guztietan hainbat elementu agertzen dira:

- **Grafikoaren edukia identifikarazten duen titulua**
- **Neurgarriak diren elementu edo objektu multzoa**
- **Elementu edo objektu multzoen neurria adierazten duen eskala edo erreferentzia numerikoa**
- **Erabilitako sinboloen esanahia zehazten duen legenda**

Grafikoak **mota askotakoak** izan daitezke (barradunak, zirkularrak, lerrodunak...) Jasotzen dituen datuak eta ikusarazi nahi den erlazioaren arabera, grafiko zehatz bat hauta daiteke.

Grafiko lerrodunak: elementu edo datu zehatz baten bilakaera ikusarazteko. Adibidea:




2. grafikoa. 100.000 biztanleko hiri batean *Bacillus anthracis* esporak 2 orduz aireatu ondoren gertatuko den antraxaren agerraldia.

www.zientzia.com http://www.zientzia.com/artikulu.asp?Artik_kod=3744&hitza=antraxa

-Barradun grafikoak: hainbat elementu edo objektu multzoren datuak elkarrekin artean alderatzeko.


Adibidea



Grafiko zirkularrak:

Objektu multzo bakoitzak osotasunari begira zenbateko proportzioa duen adierazteko. Proportzio horren baitan ordenaturik agertzen dira sektoreak edo multzoak.

(Udalerri bateko familien seme-alaba kopurua)



<http://www.elkarlanean.com/ostadar/ostadar2-matematika-2ud.pdf>

Teoria atal labur hori irakurri ondoren, zenbait grafikok jasotzen duten informazioa ahalik eta modurik zehatzenean azaltzen saiatuko zarete. Grafikoari dagokion legenda ere azalduko duzue.

Prozedura:

Taldeka aztertu proposatzen dizkizuegun grafikoak; bestela, topa ezazue beste edozein grafiko, beti ere osasunari lotua eta gelara ekarri azalpena egiteko. Hauta ezazue bat. Lehendabizi, zirriborroan idatzi adierazten duen informazioa.



Ondoren, gidoi horretan oinarriturik ikaskideei ahoz azaldu ondokoak:

- 1.- Grafikoaren berezitasunak (grafiko mota, antolaketa, datu kopurua).
- 2.- Edukiari buruzko informazioa, datuak eta atera daitezkeen ondorioak.

Ahozko azalpena egiteko erabil ezazue aurreko jarduerako kontrol-orria.


2003an, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak eta tumoreak

www.eustat.es/ele/ ele0003000/not0003081_e.html



Tuberkulosiaren intzidentziaren eboluzioa

1. grafikoa EAEan. 1996-2004.




4

Osasun Publikoa. 18. zenbakia; 1. hiruhilekoa. 2005. urtea


http://www.osanet.euskadi.net/r85-7532/eu/contenidos/informacion/boletin_epidem/eu_5482/boletin_epidem_e.html

1. grafikoa - Elgorriaren* intzidentzia EAEan



* Azken hiru urteetan, EAEan, elgorri-kasu bat besterik ez da erregistratu.


2. grafikoa - B Hepatitisaren intzidentzia EAEan



http://www.osanet.euskadi.net/r85-7532/eu/contenidos/informacion/boletin_epidem/eu_5482/boletin_epidem_e.html

Bi lan-sekuentzia burutu dituzue dagoeneko, eta badakizue monografiak nolako ezaugarriak dituen. Bestalde, landu behar dugun gaiaren edukia mugatzeko ezaugarri batzuk aztertutuzue bi herrialde, eredu moduan, harturik. Horretaz gain, grafikoen eta irudien garrantziaz ere konturatu zarete eta monografia bezalako azalpen testuetan erabili behar direla egiaztatu duzue.

Lan handia egin duzue! Aurrera, bada!



ABERASTASUNAREN BANAKETA

3.LAN-SEKUENTZIA

AZALPENA NOLA ANTOLA DEZAKEGU MODU EGOKIAN?

8. jarduera: Testu antolatzaileak eta lokailuak

Azken ekoizpenera hurbiltzen ari zarete. Hainbat eduki berri ikasi duzue monografiari buruz, baina beste ezaugarri batzuk aztertuko dituzue hurrengo saioetan.

Testua idatzi behar duzue eta idaztean edota ahoz aritzean diskurtsoaren arteko elementuen kohesioa, hau da, lotura, ezinbestekoa da ideiak bata bestearen ondoan logikaz erlazionatu eta lotzeko.

Beraz, gure lanerako funtsezkoa izango da testu antolatzaileak eta lokailuak berriro ere lantzea.

Prozedura:

Bildu hirunaka eta aztertu hasieran irakasleak erakutsitako monografiatan edota eskueran duzuen edozein testutan zein diren ideiak elkarri lotzeko erabilitako lokailuak eta testu antolatzaileak. Azpimarra itzazue eta saiatu esanahia azaltzen.

TESTU ANTOLATZAILEAK / LOKAILUAK	ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA?

8.1. Ariketa honetan, herrialde garatuetan gaur egun indar eta presentzia gero eta handiagoa duen gaixotasun bati buruzko testua duzue. Ideiak elkarri lotzeko balio duten zenbait hitz, lokailuak, hain zuzen, ezabatu egin ditugu testuan. Ea gauza zareten zein bere tokian kokatzen.

Prozedura:

Hirunaka bildu, arretaz irakurri eta irakurri ahala saiatu hutsuneak betetzen goiko taulako lokailurik egokiena hautatuz. Talde handian zuzendu eta ondoren, bukaeran duzuen koadroan sailkatu lokailu horiek.

baina	noski	esaterako	aldiz
izan ere	bestalde	hau da	izan ere
hala ere	jakina	ere	adibidez
adibidez	beraz	izan ere	

TESTUA



Obesitatea XXI. mendeko obsesioa

Kortabarria Olabarria, Beñardo

Deia-ren D2 atalean argitaratua. 2002/05/14

"Gure ardi horiek hobe dute ase on bat bi gose baino" irakur daiteke Koldo Ameztoik kontatzen duen ipuin bateko pasarte batean. Ez zaio arrazoirik falta, gosea txarra da. Izan ere, egunero milaka pertsona hiltzen dira gosez herrialde txiroetan. Hemen ez, gizarte aurreratueta janariekin egiten diren gehiegikeriek goseak baino arazo gehiago sortzen dute.

Gezurra dirudi; urte asko ez dela, gure gurasoek eta,, aiton-amonek gosea ezagutu zuten; gaur egun, gure artean goseak ez du arazorik sortzen; obesitatea,, gero eta gehiago.

....., obesitatea gaixotasun kroniko ugariaren eragile zuzen-zuzena da. Diabetea, bihotzeko gaixotasunak, minbizi-mota asko... gehiegi eta gaizki jatearen ondorio dira. (aurkaritza adierazteko), ezin da obesitatea = gose-eza identifikazioa hain argi egin. Obesitatearen atzean, sarritan bitamina- eta mineral-eskasia ezkututzen dira., adituek diote obesitateari elikaduraren eskasiari bezainbeste erreparatu behar zaiola.

Obesitatea zergatik gora? (...)

Elikadura txarraren ondorioak(...)

Egoera horien ondorioz, lodiak eta argalak antzerako osasun-arazoak izaten ari dira: sarriago gaixotzen dira, minusbaliotasun-arazo gehiago dituzte, urte gutxiago bizi dira, eta, oro har, produktibitate txikiagoa dute. Obesitatea gaixotasun kronikoak jasateko arriskua areagotzen du. Adibiderik nahi? Diabetea, hipertentsioa, bihotzeko gaixotasunak, arazo baskularrak, behazunaren gaitzak, minbizi-mota ugari... Eta, itxura guztien arabera, horietako gehienak garapen-bidean dauden herrialdeetan gertatuko dira., adituek uste dute 2025. urterako obesitatea dela eta diabetea izango dutenen kopurua 300 milioira iritsiko dela, horietatik

225 garapen-bidean dauden herrialdeetakoak. Bizirauteko dagoeneko arazo ugari duten herrialdeetan prebisio horiek beteko balira, hondamendia gertatuko litzateke.



Zergatik gizentzen gara?

Obesitatearen zergatiak ez daude oso argi, baina adituek uste dutenez, genetikak, ingurunearen eraginak eta bizitza sedentarioak zerikusi handia dute.

Genetikaren arloan lanean dihardutenek dagoeneko ezagutzen dute obesitatearen genea, ez dute uste hura bakarrean nahikoa denik obesitatea —, gantz kantitatearen igoera— eragiteko. Ingurunearen laguntza ezinbestekoa da horretarako. Urte askotan argala = gaixoa, gizona = osasuntsua bezalako loturak egin dira, segurutik gosea, pobrezia eta gaixotasunak nagusi izan diren hainbat garaien herentzia gisara. Arbasoetatik jasotako mezu horien ondorioz, haurrei janari gehiegi emateko joera nagusitu da, eta baliteke horregatik nagusitzea haurren artean obesitatea., haurtzaroan lodi diren horietako asko gero ere lodi izaten dira. Elikatzeko ohituren inguruko heziketa egokia oso garrantzitsua da, heldutasunean ohitura horiek ez baitira aldatzen.

Aurrez aipatutako loturak dagoeneko ez dira hain garbiak,ez dira erabat desagertu: ume potoloak ume ederra izaten jarraitzen du.

....., argi dago gizarte modernoan sedentarioa dela. Igogailua erabiltzeak, telebistako kateak aldatzeko urrutiko agintea edukitzeak, edo sukaldarainoko gasa izateak, jarduera fisikorik ez egitea ekarri dute, aurrez programatutako zerbait ez bada behintzat., gizakiak gero eta energia gutxiago gastatzen duenez, obesitateak gora egin du.

Egoera orokorrean gain, obesitatearen eragile izan daitezkeen arrazoi zehatzagoakbadaude:

- **Gaixotasunak**
- **Botikak**
- **Tabakoa uztea**
- **Ebakuntzen ondorengoak**

Jaten eta edaten duguna

Fruta, zerealak eta kafesnea ogiarekin gosaltzeko; garbantzuak, arraina eta arroz esnea bazkaritan, urarekin bustita; meriendan fruta apur bat; eta afaltzeko entsalada, zopa, arrautzopila eta gazta Errioxako ardoarekin lagunduta. Horrelakoak dira eguneroko elikagaiak, jan eta edaten dituguna, baina beste era batera ere esan daiteke.

Karbohidratoak, gantzak, proteinak, bitaminak, mineralak eta ura. Hori guztia aurki daiteke elikagaietan, eta hori guztia behar dugu bizi ahal izateko., horietako baten falta gaixotasun bilakatzen da. Horietako bakoitzak bere zeregina eta bere funtzioa ditu.

Gizona ala obesoa?

Begiratu batean obesoa dirudien hori behar bada ez da obesoa izango, gizona, handia, ederra... baizik., gizen guztiak ez dira obesoa izaten. Ba al dakizu zerk bereizten dituen?

Obesitatea gorputzean gantz gehiegi izatearen ondorioz sortzen den gaixotasun kronikoa da, gizarte modernoetako gorabehera metaboliko arruntena. Sarritan likidoen erretentzioa eta obesitatea nahastu egiten dira, baina erabat desberdinak dira., likido-erretentzioen ondorioz pisua hartzea arraroa da. Gutxiegitasun kardiakoak, giltzurrunetako gutxiegitasunak edo gibeletakoak eragin dezakete hori, baina horrelakoetan ezin daiteke obesitateaz hitz egin, obesitatea gantz-kantitateak gora egiten duenean sortzen baita eta ez ur-kantitatea handitzen denean.

Kasu batzuetan, nahiz eta pisu handia izan, ez dago obesitaterik. Hori,, kulturismoa egiten dutenekin gertatzen da, pisu handikoak eta gantz gutxikoak izan arren, muskulu-masa oso garatuta izaten dute eta.

Gizena egotea obesitatea izatea al da? Galde dezake batek baino gehiagok. Ez du zertan izan. Obesitateaz hitz egiteko hainbat sistema erabiltzen dira. Horietan erabilienetakoa gorputz-masaren indizea da. Indize horren kalkulua egiteko, honako formula simple hau baino ez da egin behar: Indizea = pisua kilotan / altueraren karratua. Adibidez, 60 kilo eta 1,7 metroko altuera duen pertsona baten gorputz masaren indizea honako hau da: $60 / 1,7 \times 1,7 = 60 / 2,89 = 20,7$. Indizearen ebaluazioa egitean, berriz, sailkapena honela egiten da:



- <20, pisu gutxi.
- 20-25, normala.
- 25,1-26,9, obesitate txikia.
- 27-29,9, lehen mailako obesitatea.
- 30-34,9, bigarren mailako obesitatea.
- 35-39,9, hirugarren mailako obesitatea.
- >40, laugarren mailako obesitatea, morbidoa

Adibidea emateko	Aurkaritza adierazteko	Ziurtasuna adierazteko	Zergatia adierazteko	Ideiak gehitzeko	Ondorioa adierazteko

8.3. Zergatik ez duzue orain asmatzen lokailuak lantzeko ariketa bat? Test ariketa bat prestatuko duzue.

Prozedura:

Taldeka bilduta hamar perpaus asmatuko dituzue (ikastetxeari, zuen egoerari, lagunei buruzkoak...). Denek lokailuak izan beharko dituzte, besteak beste, zergatia adierazteko, aurkaritza, ondorioa, ideia berriak gehitzeko.... (esaterako: izan ere, dena den, hala ere, aldiz, ordea, bestalde..e.a). Ondoren, ezabatu lokailuak eta a, b, c eta d erantzun-aukerak asmatu, hau da, erantzun egokia eta beste hiru, baina desegokiak. Test ariketa prestatu ondoren, beste talde bateko kideei pasatu ea hamar galderak asmatzen dituzten!

9. jarduera: Herrialdeen kokapena azaltzen


Aurreko jardueran ideiak bata bestearekin ondo lotzeko kohesio emailak lantzen aritu zarete. Orain, eredu gisa aukeratu ditugun herrialdeen kokapena ahoz adieraziko duzue aurreko jardueran kohesio elementuei buruz ikasitakoa kontuan hartuta.

Prozedura:

Talde txikian bilduko zarete eta banan-banan ahoz azalduko dituzue eredu gisa aukeratu ditugun (Kolonbia eta Japonia) bi herrialdeen kokapenari buruzko datuak. Taldekideen artean egingo duzue ahozko azalpenaren balorazioa.

Ondoren, zuetako bakoitzak munduko edozein herrialde aukeratuko du eta era berean jardungo duzue. Azalpena emango duzue herrialdea aipatu gabe eta ikaskideek zein den eta non dagoen asmatu beharko dute.

Materiala: Mundu mapa





Ikaskideen jarduna baloratzeko erabili honako behaketa fitxa hau.

AHOZKO JARDUNERAKO KONTROL FITXA

Ipini ezazue X ondo egiten badute:

	ikaslea	ikaslea	ikaslea	ikaslea
Interesa pizturik mantendu du				
Intonazioa egokia izan da				
Lexikoa hartzailearen ezagupen mailari egokitu dio				
Jarrera eta keinuak egokiak izan dira				

4. LAN-SEKUENTZIA

MONOGRAFIA IDATZIKO DUGU

10. jarduera: Planifikazioa

Egitekoa planifikatzen hasiko zarete. Horretarako, urrats batzuk bete beharko dituzue ezinbestean. Ikerketa lana egiteko beharrezkoak diren alderdiak dituzue jarduera honetan. Desordenatuta daude, eta ordenatzeko proposamena egiten dizuegu, burutu behar duzuen prozesuaren irudi garbia izateko.

Bikoteka arituko zarete eta gero, emaitzak bateratuko dituzue. Gogoratu azalpen testuari buruz dakizuen.

Ondoko zutabean idatzi urratsak ordena egokian.

Informazioa bilatu eta jasotzea.	
Atal bakoitzerako informazio baliagarria bilatzea.	
Testuaren eta formatuaren azken azterketa.	
Hasierako eskema bat egitea.	
Gai bat bilatzea.	
Formatuaren alderdiei buruzko erabakia.	
Hasierako zirriborroa idaztea.	
Elementu grafikoak gaineratzea.	
Aurkibidea egitea.	
Gaiari buruzko ideiak metatzea.	
Eskuragarri dagoen informazioa azpimarratzea.	
Testu mota aukeratzea.	
Zereginak taldean banatzea.	
Informazioa hautatzea.	

Kurrikulu desberdinetarako materialak B01/B07/B08 Berritzeguneak.

11. jarduera: Aztergaiak aukeratzeko

Azken sekuentziako jarduera honetan bi herrialde aukeratzeko dituzue, bata garatua eta bestea ez-garatua, zuen taldeak landuko duen monografiaren aztergai izateko.

Prozedura:

Hiruko taldean bildu eta erabaki zein izango diren zuek aukeratzeko dituzuen herrialdeak. Zergatia ere azaldu behar duzue.

Aurreko lan-sekuentzia batean, gaia zehazten aritu garenean, alegia, aztertu dituzue herrialde garatu eta ez-garatu zenbait ezaugarri. Berreskuratu adierazle horiek eta aukera itzazue monografian aztertuko dituzuen bi herrialdeak.



Taldea:

HERRIALDE GARATUA	HERRIALDE EZ-GARATUA
ZERGATIK DA GARATUA?	ZERGATIK DA EZ-GARATUA?

12. jarduera: Datuak biltzen eta lanaren helburuak zehazten

Orain, hautatu dituzuen herrialdeei buruzko informazioa jaso eta antolatu egingo duzue, ezer idazten hasi aurretik.

Gogoratu idatziko duzuen testua testuingurura egokitu behar duzuela, hau da, kontuan izan behar duzuela idazten hasi aurretik nor izango den lanaren hartzailea, zein izango den lanaren helburua, non argitaratuko duzuen lana... eta horren arabera **aukeratu eta moldatu beharko duzuela informazioa**.

Ez ahaztu, bestalde, bigarren sekuentzian aukeratu dituzuen adierazleak; izan ere, horien arabera ardaztuko duzue informazio guztia.

Prozedura:

Taldeka bildu eta arretaz aztertu ondoko fitxa. Bertan informazioa topatzeko zenbait urrats dituzue.

Informazioa bildu eta bete ezazue bigarren fitxa.

Fitxa horren bidez informazioa ondo antolatuko duzue eta lanaren helburu nagusia eta bigarren mailakoak ere zehaztu ahal izango dituzue.

INFORMAZIO BILKETA EGITEKO PROZEDURA

- Idatzi orrialde batean ZER JAKIN BEHAR DUZUEN eta zeri buruz IDATZI BEHAR DUZUEN.
- Liburutegiko KATALOGO OROKORRA kontsultatu, lanaren gaiari lotutako liburuak bilatu ondoren:
 - ❖ Aukeratu egokienak iruditzen zaizkizuen bizpahiru izenburu
 - ❖ Berriz aztertu aurkibidea eta erabaki hautatutakoak baliagarriak diren ala ez.
 - ❖ Erabilgarriak topatuz gero, bete 1. fitxa
- Liburutegiko TESTU-LIBURUEN atala kontsulta dezakezue:
 - ❖ Hautatu gizarte gaiei loturikoak
 - ❖ Berriz aztertu aurkibidea, baliagarriak izango zaizkizuenak hautatu eta idatzi 1. fitxan.
- ENTZIKLOPEDIA TEMATIKOAK ere azter ditzakezue.
- Unitatean proposatzen diren WEB HELBIDEETARA jo:

Hona hemen informazioa biltzeko, aurreko jardueretan emandakoaz gain, erabilgarri izan daitezkeenak:

<http://www.guiadelmundo.org.uy/cd/intro.html>
<http://www.indexmundi.com/>
http://eu.wikipedia.org/wiki/Giza_Garapen_Indizea
<http://www.ibge.gov.br/paisesat/main.php>

 - ❖ Hautatu bizpahiru orri
 - ❖ Aztertu edukia baliagarria zaizuen ala ez erabakitzeko
 - ❖ Baliagarria bada, bete ezazue 1. fitxa

INFORMAZIO ITURRIAK:

Zeintzuk erabiliko ditugu?

Sarrera idazteko:

Zeintzuk erabiliko ditugu?

Zer informazio dago bertan?

Garapenerako informazioa:

Zein adierazleri buruzko informazioa bilatu behar dugu (5. jarduera)?

Nondik aterako dugu?

Zer informazio dago bertan?

Ondorioa. Bukaera idazteko:

Zein iturritara joko dugu?

Zer informazio dago bertan?

13. jarduera: Gidoia eta eskema osatzen

Gidoia eta eskema egiteak zirriborroa behar bezala idazten lagunduko dizue. Eskemaren bidez monografiaren atalak eta egitura zehaztuko dituzue. Horrela, informazioa egokia den ala ez eta ondo antolatuta duzuen ikustari ahal izango duzue.

Prozedura:

Elkarrekin eztabaidatu zein diren zuek hautatutako materialetatik erabiliko dituzuenak eta nola antolatuko dituzuen, monografiak benetako interesa pizteko eta aukeratuko dituzuen bi herrialdeen osasun egoerari buruzko azalpena ahalik eta modurik argienean emateko.

Egiaztatu eskema horretan aurreko jardueretan zehaztutako ezaugarri guztiak ageri direla. Gero, irakasleari eskatu ikusteko eta iritzia emateko.

(Oharra: irakasleak arbelean zehaztuko dizue, beharrik izanez gero, zein diren eskemak/gidoiak izan behar dituen punturik inportanteenak.)

14. jarduera: Konparazio-egitura

Azken ekoizpena monografia da, baina azalpena ematean nolako egiturari eutsiko diozuen jakin behar duzue, eta horixe da, hain zuzen ere, gure helburua jarduera honetan.

Guk konparazio-egitura proposatzen dizuegu; izan ere, monografiak bi herrialde guztiz ezberdinen osasun egoerak erkatuko ditu.

Prozedura:

Hiruko taldeak egin eta ereduak erreparatu. Hemen dituzue barne egituraketa horri dagozkion eredu batzuk:

KONPARAZIO-EGITURA

Bi helbururen, egoeren, ideien, eta abarren, arteko antzekotasunak edo aldeak adierazten ditu konparazio-egiturak.

Konparatu beharreko errealitateak aurkezten dituen sarrerako paragrafo batekin hasten da. Konparazioa bideratuko duten alderdiak hautatzen dira ondoren.

Adibideak

A) **ERDI AROA ETA ERRENAZIMENTUA**

Alde nabarmenak daude VIII eta XIV. mende bitarteko Europaren eta XV. mendetik aurrera sortzen denaren artean, honako bi etapa historiko hauek bereizteko moduan: **Erdi Aroa eta Errenazimentua**.

Pentsamoldean dago alde horietako **bat**. Erdi Aroaren zatirik handienean, ia monasterioetan bakarrik garatu zen kultura, eta tradizioa eta Elizaren agintea izan ziren gida-lerro garai hartan; Errenazimentuan, **berriz**, arrazoiaren eta gizabanakoaren garaipena dakartzan pentsamendu humanista sendotu zen; azterketatik eta norberaren gogoetatik abiatuta eztabaidatzen eta argudiatzen zen.

Bestalde, Erdi Aroan ia ez dago Estatu zentralik, jaun feudalek asko mugatzen baitzuten erregeen boterea. Errenazimentuan, **ordea**, lehen estatu modernoak sortu ziren. Horietan, erregeak soil-soilik arduratuko dira ejertzitoak sortu eta mantentzeaz, justiziaren administrazioaz edo zergak biltzeaz.

Azkenik, jarduera komertzial eta ekonomikoa oso murrizta izan zen Erdi Aroan. **Hala eta guztiz ere**, XV. mendetik aurrera, merkataritza-bide berriak aurkitzearekin batera (Amerika, Ozeania, Asia), izugarri zabaltzen ziren Europaren horizonteak eta nabarmen hazi zen jarduera ekonomikoa.

Kurrikulu ezberdinetarako materiala. XXI. mendearen erronkak. Berritzeguneak

B) **Testua**

“Zerbitzari seguruen kasuan, Europar Batasunak defizit garrantzitsua dauka Ameriketako Estatu Batuen eta Japoniaren **aldean**. Izan ere, Europar Batasunean 80 zerbitzari seguru baino gutxiago daude milioi bat biztanleko eta Ameriketako Estatu Batuetan eta Japonian, **berriz**, kopuru hori bostekin eta zazpirekin biderkatzen da, hurrenez hurren. **Gainera**, mota horretako zerbitzariak batik bat salerosketa elektronikoetan erabili ohi den transmisio enkriptaturako protokoloa (Secure Socket Layer SSL) erabiltzen dutela kontuan hartuta, goian adierazitako defizitak merkataritza elektronikoak Europan garapen **txikiagoa** izan duela islatzen du.”

Orain, konparazio egitura landuko duzue eta horretarako bi testu irakurriko dituzue arretaz. Saiatu bi testu horiek testu bat bakarra bihurtzen aurkaritza adierazten duten lokailu eta testu antolatzaileen bidez eta ezaugarrien arteko konparazioa egiteko egitura sintaktikoak erabiliz.

Erabiliko dituzuen testu antolatzaileak eta lokailuak, besteak beste, honako hauek dira:

ordea, berriz, aldiz, baina, hala ere, dena den...

Konparazio egiturak: *baino...-ago(a) da*

- *(r)en aldean...*



Anorexia



Nahaste hau duten pertsonak ez dute beraien pisua parametro edo muga arruntean mantendu nahi, pisua gehitzeari beldur izugarria diote edo neurritz gainera loditasuneraino iristeko beldur dira. Gehiegizko kezka sortzen die gorputz-irudiak edo itxurak, eta pertsona bezala duten balioa, gorputz-irudiarekiko duten iritziaz dago baldintzatuta

Nerbio anorexia estuki lotuta dago emakumeekin: gaixoen %90-95 inguru emakumezkoak dira. Hala ere, gero eta gizonezko gehiagok jasaten dute gaixotasuna.

Sintomak: Modu asko daude nahasmen hau detektatzeko. Garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Adinari eta altuerari dagokien pisua balio minimoaren berdina izatea edo pisu handiagoa mantentzeari uko egitea.
- Pisu galtze nabarmena, eta lodi dagoela esatea nahiz eta argal egon.
- Jaki kopurua murriztea.
- Geroz eta barnerakoiago eta isolatuago azaltzea.
- Oldarkortasuna, goibeltasuna eta sendi eta lagunengandik isolatzea.
- Den-dena edertasunaren, arrakastaren eta irudiaren arabera soilik epaitzea.
- Ikasketetan kontzentrazioa galtzea.
- Bakarrik jatea.
- Neurrigabeko ariketa fisikoak egitea.
- Diuretiko eta laxanteak kontsumitzea.
- Hilerokoaren irregulartasuna edo galera.
- Hotzak egotea eta idorreria izatea.



Bulimia

Bulimia duten pertsonak gehiegizko janaria irensten dute eta gero oka egin. Kasu askotan gainera, neurrigabeko laxanteak eta diuretikoak hartzen dituzte, eta jan-neurri murrizten eginez saiateren dira beraien jokaera desegokia konpontzen.

Nerbio-bulimia emakumezkoen lortuta dago: gaixoen %90-95 inguru emakumezkoak dira eta kasu askotan, gaizki zaindutako anorexiatik sortzen da bulimia.

Sintomak

Modu asko daude nahasmen hau detektatzeko. Garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Kontrolik gabe jaten dute.
- Jateari utzi ezin diotelako irudipena izaten dute.
- Ez dute jaten, edota dieta latz eta gogorak egiten dituzte lehenago neurrigabe jandakoa konpentsatzeko.
- Hortzetako arazoak.
- Erraz sumatzen diren umore aldaketak eta depresioak.
- Oka eragitea.
- Itxura osasuntsua izaten dute, eta horrek gaixotasuna antzematea zailtzen du.
- Laxante eta diuretikoak neurrigabe erabiltzen dituzte.
- Jan eta gero, askotan komunera joaten dira.
- Pisuaz kezkatuta egoten dira
- Hileroko irregularrak izaten dituzte neskek.
-

<http://www.gazteaukera.net/E>

Jarduera: saia zaitezte orain, bi testu horiek testu bakarra bihurtzen.

Anorexia eta bulimia

Monografiaren zirriborroa idatziko duzue orain. Horretarako, kontrol-orri honek lagun diezazueke:

KONPARAZIO-TESTUA IDAZTEKO KONTROL-ORRIA

- Informazioa jaso aurreko jardueran bildutako datuetan oinarriturik.
- Bi ideiaren, egoeraren, objekturen, eta abarren edo gehiagoren artean, antzekotasunak eta aldeak ezartzeko baliagarri den informazioa hautatu.

Informazioa

- Konparazio-egitura eskema baten arabera laburbildu (ikus egiturak).
- Testuaren idazkuntza egin :
 - Hirugarren pertsona erabili.
 - Indikatiboaren orainaldia, iraganaldi burutua eta burutugabea.
 - Lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabili konparazioak egiteko .

Idaztean, bestalde, ez ahaztu lokailuak eta testu antolatzaileak. Monografian garatu behar duzuen barne egitura zein den kontuan harturik, ondoko taulan ageri direnak proposatzen dizkizuegu. Saiatu denak erabiltzen.

● Era berean,	● Aldiz,
● Halaber,	● Hala eta guztiz ere,
● Beste ikuspuntu batetik,	● Baina
● Horri buruz,	● Bitartean,
● Horri dagokionez,	● Dena den,
● Horren inguruan	● Aitzitik,

15. jarduera: Konparazioak lantzeko sintaxi ariketa

Testua eta, batez ere, konparazioak idaztean esaldi mota jakin batzuekin egin duzue topo.

Oraindik zirriborroa baino ez duzue idatzi. Beharbada, jarduera hau egin ondoren, zuen idazketa hobetu ahal izango duzue.

Prozedura:

Bizpahiru taldek egindako zirriborroa zuzentzen arituko zarete denon artean. Irakasleak zirriborroen fotokopiak banatuko dizkizue eta taldeko ordezkariak ozenki irakurriko dituzte. Entzun eta irakurri ahala, bakarka edo talde handian denok batera zuzenketak egingo dituzue.

Ariketak

15.1. Osasunari eta bizi kalitateari buruz ari garenez gero, ohitura osasungarriez arituko gara orain, eta konparazio egitura sintaktikoak landuko ditugu.

Koadro batean idatziko dituzue hirian eta herri txikitxoan bizitzeak nolako abantailak edo desabantailak izan ditzakeen osasunari begira:



HERRI TXIKIAN

ABANTAILAK

DESABANTAILAK



HIRIAN

ABANTAILAK

DESABANTAILAK

15.2. Osasuna aztertzen dihardugunez, eman zuen iritzia ondoko leku hauetako osasun egoerari buruz. Eman dezagun medikuak zaretela eta lan egitera joan behar duzuela leku horietara. Zein da onena lan egiteko? Eta bizi izateko? Eta bisitatzeko? Jarri herrialde bakoitzari hiru adjektibo.

-  Malasia
-  Ukraina
-  Libia
-  Tanzania

Egin itzazue beraien arteko konparaketak.





15.3. Beste ariketa bat:

Prozedura:

(Bakarkako lana) Konparazio egituretan ager daitezkeen esaldiak dituzue honako hauek. Esaldi zuzenak dira, akatsik gabeak. Guk ematen dizuegun hitza erabili behar duzue eta esaldia berridatzi esanahia aldatu gabe:

1.- Herrialde honen osasun egoera eta beste horrena berdina dira.

(bezalakoa)_____

2.- Haur eta emakumeen osasun azterketak egiten hasi ziren momentuan oso gaixorik zeudela konturatu ziren medikuak.

(bezain)_____

3.- Gero eta neska gehiagok sufritzen dute anorexia eta bulimia; baita mutil askok ere.

(beste/adina)_____

4.- Europako eta Amerikako Estatu Batuetako medikuak joaten direnean hasten dira egoera penagarriari buruzko informazioak zabaltzen.

_____bezain_____

5.- Diru eta laguntza gehiago jasotzekotan ziren, baina apur bat baino ez zaie heldu.

_____bezain dirutza_____

6.- Gutariko inork oraindik ez du dezakeen guztia egin egoera hobetze aldera.

_____beste_____

7.- Bai nire lagunak eta bai zuek izaten dituzuen gaixotasunak ezin dira haien gaixotasunekin konparatu.

_____bezalakoak.

8.- Estatu Batuetan gizentasun morbidoa dutenen kopurua izugarria dela diote; Etiopian ez dago ia horrelakorik.

_____agoa_____

9.- Hilkortasun tasa izugarria dute herrialde ez-garatuek; herrialde garatuek, ordea, oso baxua.

_____baino_____

10.- (...)



16. jarduera: Sarrera idazten

Lanaren laburpena edo abstract-a idatziko duzue orain. Lan monografikoaren datu jakingarriak adierazi behar dituzue, lanaren justifikazioa, hain zuzen ere.

Prozedura:

Hiruko taldean arituko zarete.

Jarduera hau ondo burutu ahal izateko datuak biltzeko fitxa erabiliko duzue. Galderak erantzun eta datuak jarraian idatziko dituzue, ideiak elkarrekin ondo lotuz (gogoratu lokailu eta testu antolatzaileen jardueran landu duzuen).



BEHAKETA TXANTILOIA (16. jarduera)

Zein izan da zuen lanaren helburu nagusia?

Zergatik aukeratu dituzue aztergai horiek?

Gai zabal horren barneko beste azpi-gai batzuk aztertu dituzue, zeintzuk?

Zein eragozpen izan duzue datuak jasotzean?

Nora jo duzue?

Nola egituratu duzue? (kapituluka, gaien arabera ...)


Zer ondorio atera duzue?

Besterik?

17. jarduera: Azken ekoizpena

Testuko atalak eta azpiatalak ondo zehaztuta eta idazketa prozesua burutua dugularik, ondoko hiru urratsak betetzea baino ez zaigu falta gure monografia burutzeko.

- Aurkibidea
- Bibliografia
- Azala



Aurkibidea, hasieran ala amaieran? Zer ikusi duzue hasieran aztertutako monografietan?

Ez ahaztu bibliografia aipatzea; bertan, kontsultatu dituzuen liburuak, argitaratzaileak, urtea eta orrialdeak adierazi.

Bestalde, Internet erabili baduzue, artikuluen eta gainerako baliabideen aipamena ere egin.

Eta azkenik, azala; erakargarria behar du izan !

Prozedura:

Proiektua taldeko lana izanik, orain ere taldean arituko zarete.

- Lana idatzitakoan jarduera honetan duzuen txantiloia beteko duzue lana ikaskideenarekin trukatu ondoren.
- Ikaskideen lana aztertuko duzue eta hobe daitezkeen alderdiak markatuko dituzue bertan. Beste taldekoek ere era berean jardungo dute zuen lanarekin.
- Irakasleari erakutsiko diozue lana baloratzeko eta zuzenketak iradokitzeke.
- Zuzenketak egin, eta behin-betiko testua idatzi.

LANA BERRIKUSTEKO TXANTILOIA

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	BAI/EZ	Hobetzeko proposamenak e iradokizunaktz
EGOKITZAPENA	• Informatzeko xedea betetzen du testuak? • 3. pertsonan idatzita dago? • Iritzirik ageri da? • Testu objektiboa? • Egokia da erabilitako erregistroa (hiztegia)? • Erregistro oso landua da? • Erraz ulertzen da? • Lexikoan teknizismoak ageri dira? • ...		
KOHERENTZIA	• Testuak ematen duen informazio guztiak garrantzia du? • Informazioa errepikatzen da? • Gehiegizkoa da? • Datu kontraesankorrik ageri da? • Testuaren egitura argia da? Kapituluka, atalka antolatuta dago? • Paragrafo bakoitzak ideia bat garatzen du? • ...		
KOHESIOA	• Paragrafoak elkarri lotuta daude? • Bada lokailurik? • Lokailuen erabileran aberastasunik antzematen da? • Egitura konparatiboa argi ikusten da? • Bada puntuazio-akatsik? • Gaiaren erreferentzia galtzen da? • ...		
ZUZENTASUNA	• Aditza orainaldian eta indikatiboan dago? • Zer nolako perpausak dira nagusi? (erlatibozkoak, adierazpen perpausak, konparaziozkoak...) • Perpausak sintaktikoki ondo egituratuta daude? • Bada nahaste edo akats lexikorik? • Bada akats ortografikorik?		
BESTE BATZUK	• Behar bezala emana dago testua orrialdean? • Tipografia egokia erabiltzen du? • Irudiek eta bestelako baliabide grafikoek testuaren argitasunari laguntzen diote? • Bada azalik? • Bada aurkibiderik? • Bibliografiaren aipamenik egiten da? • ...		

Kurrikulu desberdinetarako materiala. B01/B07/B08 BERRITZEGUNEAK

Ikaskideek egindako

iradokizunak kontuan hartu eta

aldaketak eginak badituzue, zuen

monografia beste gelakoen

liburutegi txokoan utzi, denek ikusi

eta irakurri dezaten.